

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

- **Elementu garrantzitsuenak**

Proiektua aurrera eramateko, ez ditugu gauza material asko behar, ez dugulako produktu bat eskaintzen, zerbitzu bat baizik. Gure zerbitzua eskaini ahal izateko garrantzitsuena baliabide intelektualak eta gizarte baliabideak dira: gu izango gara bezeroekin hitz egin eta salmentak finkatuko ditugunak, baina aplikazioekin trebea den norbait eta legeen esparruan aditua den norbait beharko ditugu. Pertsona hauei, hilero ordainduko diegu eta haien soldata 1500€ koa izango da.

Bestalde, ordenagailu bat behar dugu aplikazioekin trebea den informatikoak gure web-gunea egiteko eta antolatzen joateko. Ordenagailua ez da oso konplexua izan behar 500€ gutxi gora behera balio duen ordenagailua erosiko dugu.

Guzti hau kontuan hartuta, 500€ ko gastua izango dugu hasieran ordenagailua erosteko eta, hilero, 3.000€ ko gastua izango dugu langileei ordaintzeko.

